

myGADE-ko ikasle berriak iada martxan ditugu.

2015/09/09

Ilusio asko eta urduritasun pixkat ere ekarri dute gure 60 ikasle berri inguruk aste honetan Oñatiko campusera. Harrera plan batekin hasi dira, beti ere fakultatea ezagutu, irakasleak, lan egiteko modu berriak eta nola ez beraien artean ezagutzeko helburuarekin. Ikasleak herri desberdinetatik hurbildu dira, baina prest agertu dira datozen lau urteak batera igarotzeko. Lau urte hauetan izango dute denbora arlo profesionalen hazteko eta nola ez arlo pertsonalean ere.

Ongi etorri guztioi!

